

SEXU-ANIZTASUNA ULERTZEKO ZENBAIT IDEIA OINARRIZKO*

Aingeru Mayor

Giza sexu-izatea eta sexu-aniztasuna ulertzeko zenbait ideia oinarrizko azalduko ditugu jarraian.

Sexuak: neskak eta mutilak

Emakume eta gizon, neska eta mutil, izateari egiten dio erreferentzia sexuak, sexuatu bihurtzen goazen prozesu biografiko gisa ulertuta —sexuazio prozesua—. Eta continuum gisa —sexuen continuuma—, pertsona orok baititugu bi sexuen ezaugarriak; ezaugarri horiek, elkarri lotuta, gure biografia osatzen dute.

Neskak eta mutilak sexuatzeko ari dira jaiotzetik bertatik eta bere bizitza osoan zehar, eta gizon eta emakume zehatz eta bakar konfiguratzeko edo egiten dira.

Sarri «sexual» adjektiboa erabiltzen da, «genital» esan nahi denean, eta bada «genitalei» —edota genitalekin egiten denari— «sexu» deitzen dionik ere.

Nozioak nahasteari utzi behar diogu, errealitatea ulertu nahi badugu: kontu bat dira genitalak, beste kontu bat dira jokoerak, eta bestea sexua. Kontu bat da norberak daukana, beste kontu bat norberak egiten duena, eta bestea norbera dena.

Sexu-karakterak eta moduak: femeninoa eta maskulinoa

Zenbait ezaugarri ez dute zerikusirik sexuarekin: begien koloreak edo ilearenak, esaterako. Baina beste batzuek bai: sexu-karakterak (baita sexu-ezaugarriak ere).

Emakumeek maizago izan ohi dituzten ezaugarriak femenino deitzen diegu. Gizonek maizago izaten dituztenei, berriz, maskulino. Maizago izateak ez du esan nahi beti izaten direnik. Hain zuzen, kontrakoa esan nahi du: ez direla beti izaten.

Continuum bati egiten diote erreferentzia maskulino eta femenino terminoek,

sexu-continuumari, zeinak marrazten baitu mailaketa infinitu bat, muturreko maskulinoen eta femeninoen artekoa. Eta continuum horren tokiren batean kokatzen da gure sexu-ezaugarri bakoitza. Horietako ezaugarri batzuk anatomikoak dira. Aurpegian bilo gehiago izatea, esaterako, maizago gertatzen zaie gizonezkoei, emakumezkoei baino. Horregatik diogu ezaugarri maskulinoago bat dela. Baina badira, noski, bilorik gabeko gizonak, eta baita aurpegian bilo asko duten emakumeak ere.

Sexu-adierazpena

Beste sexu-ezaugarri batzuek zerikusia daukate norberak adierazteko, jokatzeko edo janzteko dituen moduekin edo norbere zaletasunekin. Gonak janztea, edota gonak janzteko modua, adibidez, edota ilea motzago edo luzeago eramatea, eta orrazteko modua, takoiak janztea, ezpainak margotzea, ibiltzeko era, jolas batzuekiko edo besteekiko zaletasuna... Ohiturek eta jendarte-erabilerekin asko baldintzatzen dituzte ezaugarri hauek, eta gauden kulturaren araberrakoak dira. Maskulinoago edo femeninoago izateko eta adierazteko moduak dira, eta sexu-adierazpena osatzen dute [genero-adierazpena ere deitua].

Intersexualitatea eta sexu-aniztasuna

Intersexualitatearen teoriak azaltzen du maskulinoan eta femeninoan sexuatzeko dela pertsona oro, guztiok ditugula ezaugarri femeninoak eta maskulinoak, neurri handiagoan ala txikiagoan. Ezaugarri horien proportzio desberdina eta bakarra dauka norbanako orok, eta horrexek egiten gaitu desberdin, eta era berean irudiko. Sexuazioak aniztasuna dakar: sexu-aniztasuna deitzen diogu. Aniztasunak

*Incisex Sexologia-institutuko zuzendari den Efigenio Amezuáren "Hecho Sexual Humano" izeneko marko teorikoan kokatzen dira hemen azalduko hainbat ideia.

aberastasuna esan nahi du. Ez dugu ahaztu behar desberdin, berezi, bitxi izateak egiten gaituela erakargarri.

Sexu-identitatea

Mutil edo neska izateak zerikusia dauka norberak bere buruarekiko daukan pertzepzioarekin, alegia, nola identifikatzen den. Ez da norbera modu batean sentitzea soilik (“mutil sentitzen naiz”, “neska sentitzen naiz”), baizik eta batez ere jakitea zer den norbera (“mutila naiz”, “neska naiz”). Norberarekiko pertzepzio honen –mutila naiz, neska naiz– lehen adierazpenak lengoaiaren konkistarekin hasten dira, bi urteren bueltan.

Neska izatea, mutila izatea, kontzientzia kontu bat da. Norbera neska edo mutila da, hala dela badakielako. Autopertzepzio hau oinarri hartuta, eta gainerakoen begiradarekin elkarrizketan, eta betiere gauden gizarte-testuinguruan, sexu-identitatea eraikitzen da; hau da, naizen neska edo mutila izateko modu berezia.

Gehienek badakite neska edo mutil direla eta hala dira, beraz. Era berean, egon daitezke beren burua ez neska ez mutil ez direla hautematen dutenak ere, eta hortaz ez dira izango ez neska ez mutil. Hori bai, gainerakoen antzera, eurak ere ezaugarri maskulinoekin eta femeninoekin eraikitzen dira.

Genitalen eta sexu-identitatearen arteko nahasketa

Kasu gehienetan, mutilek zakila daukate, eta neskek bulba. Horregatik, jaiotzerakoan, genitalai begiratzen zaie jaioberriaren sexua zein izango den asmatzeko, zein izango ote den bere sexu-identitatea. Baina hau ziur jakin ahal izango dugu soilik lengoaiaren konkistarekin, bi urtetik aurrera, haurra hitz egiten eta adierazten hasten denean, “mutil bat naiz” edo “neska bat naiz” baieztatzearekin bat.

Kasu gehienetan, jaio berritan egindako iragarpena zuzena izaten da. Kasurik ohikoena litzateke, non mutilek zakila baitaukate, eta neskek bulba. Errealitate honi zisexualitate deritzo. Kasu batzuetan, mutil gisa iragarritako haurra (zakila daukalako), neska izaten da (hala dela

esaten digulako). Edo neska zela uste genuena (bulba daukalako), mutila izan ohi da (hala dela esaten digulako). Errealitate honi transexualitatea deitzen zaio. Oso garrantzitsua da ez nahastea: kontu bat da norberak daukana, eta bestea norbera dena.

Ez da zaila ulertzea sexu-identitatea —zeinak betiere prozesu kognitiboekin zerikusia baitauka—, ez dagoela genitaletan. Hain zuzen, mutil batek istripu batean zakila galduko balu, ez luke zakilik izango, baina inork ez luke zalantzan jarriko mutil izaten jarraitzen duela. Genitalek ez dutelako sexu-identitatea zehazten.

Ez dezagun ahaztu badirela neskak eta mutilak zeinak euren genitalak ez baitute ez zakil baten ez bulba baten antza, edota bien antza dutenak. Eta baita genitalik ez dutenak ere. Euren sexu-identitatea, gainerakoenaren moduan, ez dute beren genitalak definitzen.

Genero-inposizioak

Jendarte orok espektatiba batzuk ezartzen ditu honi buruz: neskak “nolakoak diren” eta mutilak “nolakoak diren”. Espektatiba horiek inposizio bihurtzen dira: “Mutilak halakoak dira, eta halakoak izan behar dute. Eta neskak beste modu batekoak dira eta halakoak izan behar dute”. Genero-inposizioak deritze. Inposizio hauek zaildu egiten dute norberak bere izaera eta adierazteko modua garatu ahal izatea.

Gure jendartean, adibidez, neskek panpinekin eta sukaldeekin jolastea espero da, adeitsuak eta ongi heziak izatea, garrasi handirik ez jaulkitzea, soineko ederrak janztea (eta ez zikintzea!), euren burua apaintzea, “arrosak” izatea... Era berean, espero da mutilak superheroitara jolastea, futbola gogoko izatea, ausartak izatea, “nesken gisan” negarrik ez egitea, “urdinak” izatea... Baina nork erabaki du neska bazara printzesa bat izan behar duzula eta mutila bazara, berriz, txapelkun bat?

Jendarte honetan, ohikoena denari “normala” deitzen zaio. Eta, kontuz!, zeren eta, ohartu gabe, magia-trikimailu baten gisara, “normala” dena “norman” bihurtzen dugu, arau batean, alegia. Hau da, “izan ohi dena” bilakatzen da “izan behar duen”

horretan. Eta zigortu egiten dira “normatik” aldentzen direnak, gehiengoak ez daukan ezaugarri bat edo beste dutenak. Eta sufriarazi egiten zaie horregatik.

Norbera neska edo mutila da, bere erara

Errealitateak behin eta berriz erakusten diguna zera da: mutilak ez direla “modu batekoak” eta neskek “beste batekoak”. Eta argi geratu behar du ez dutela zertan hala izan. Neska askok ile luzea daramate; eta mutil batzuek ere bai. Ile motza daramaten neskek eta mutilak ere badaude. Mutil askori futbolean jokatzeko gustatzen zaie, baina neska zenbaiti ere bai, eta mutil batzuei ez. Badira galtzak janzten dituzten neskek [duela 100 urte ez zenituen kalean zehar ikusiko], eta baita soinekoak eta diademak atsegin dituzten mutilak ere [baina gaur egun ez duzu apenas batere ikusiko kalean].

Neska bakoitza, mutil bakoitza, desberdina da. Neska bakoitza neska da bere erara, eta mutil bakoitza mutila da bere erara.

Desira erotikoren orientazioa

Pertsona batzuei nagusiki gizonak gustatzen zaizkie, gizonak erakartzen dituzte, gizonak maitemintzen dira. Besteei, berriz, nagusiki emakumeak gustatzen zaizkie, emakumeek erakartzen dituzte, emakumeek maitemintzen dira. Desira erotikoren orientazioa deitzen diogu horri, eta nerabezaroan jabetzen gara horretaz. “Nagusiki” diogu, zeren, gehiago edo gutxiago, baina guztiontzat izan daitezke erakargarri bi sexuak.

Norbaitek desira erotikoa sentitzen badu nagusiki sexu bereko beste pertsona batekiko, homosexualitateaz hitz egiten dugu. Aldiz, berea ez den sexuko pertsonak pizten badiote, nagusiki, desira erotikoa, heterosexualitateaz mintzatzen gara.

Kasu gehienetan, emakumeentzat, gizonak dira erakargarri nagusiki; gizonentzat, berriz, emakumeak. Hala izanik ere kasu gehienetan, ez du esan nahi hala denik beti. Kontrakoa esan nahi du, hain zuzen: ez da beti horrela. Ohikoena ez bada ere, gizon askori gizonak gertatzen zaizkie erakargarri nagusiki, eta emakume mordoari, berriz, emakumeak.

Identitatea, adierazpidea eta orientazioaren arteko nahasketa

Garrantzitsua da ez nahastea sexu-identitatea [nor naiz], sexu-adierazpena [nire zaletasunak, nire portaerak...], eta desira erotikoren orientazioa [norekin maitemintzen naiz].

Hala, esaterako, mutil bati azkazalak margotzea gustatzen bazaio, ez du esan nahi mutil bat ez denik, ezta bere desiraren orientazioa homosexuala dela ere; horrek adierazten duen gauza bakarra da azkazalak margotzea gustatzen zaiola. Neska izateak ez du esan nahi, halaber, soinekoak janztea eta ile luzea eramatea gustatu behar zaionik derrigor, ezta mutilak gertatu behar zaizkionik erakargarri ere. Neska bati futbolean jokatzeko eta zuhaitzetara igotzea gustatzen bazaio ere, ez dio horregatik neska izateari uzten. Mutil bati mutilak gustatzen bazaizkio ere, mutila izaten segitzen du noski.

Ezinbestekoa da desberdintzea nor naizen, nola adierazten naizen, eta norekin maitemintzen naizen.

Sexu-aniztasunaren altxorra

Ezagutu eta sustatu behar den balio bat da sexua. Eta balioetan “preziatuena” da aniztasuna. Neska era batekoak eta mutilak besteak beste izateko lortu nahi duen zapalgailuaren ordean, zeinak mutil guztiak batetik eta neska guztiak bestetik denak berdindu nahi dituen, leku egin behar diogu sexu-aniztasunaren kolore, portaera, ñabardura eta berezitasunen konbinazio infinituaren ortzadarrari.

Egin dezagun aurrera eskubideen eta aukeren berdintasunerantz, aniztasuna onetsi eta lantzearekin bat. Neska eta mutil bakoitzak izan dezala den bezalakoa izateko aukera, berez den hori izateko egokiera, gustuko duen eran adieraztekoa, bere zaletasunak, interesak eta harremanak garatuz, ezaugarri maskulinoen eta femeninoen gama guztiarekin, bere osoan zabalduz hegalak... Eta hegan egin, hala.

Eta izateko aukera izan, modu horretan.